

Gazteleku

komunitate-garapena Errekalde auzoan

Begoña Abad, Mikel Arriaga, Oihane García, Javier G. Burutxaga





Egileak: Begoña Abad, Mikel Arriaga, Oihane García eta Javier G. Burutxaga (Koheslan)

Lege-gordailua: BI-723-2013

ISBN: 978-84-941387-0-6

Inprimaketa: Ingugom

Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios

Itzulpena: Labayru

Gazteleku komunitate-garapena Errekalde auzoan

Aurkibidea

2	Introduction
3	Aurkezpena
5	1. Gizarte-ekimen berritzailea
17	2. Gizarte-egoera ahulean dagoen auzoan
21	3. Zer gara eta nortzuek eratzen dugu <i>Gazteleku</i> ?

Introduction

This notebook is a preview of the study/assessment conducted by KOHESLAN (Study Group for Social Cohesion) together with *Gazteleku* (Community Development Association), as part of a corporate/university contract (UPV/EHU 2011.0531). The objective of this contract was to generate knowledge about the *Gazteleku* initiative, and more specifically about what that initiative has been doing to contribute to community development within their local environment, in the Rekalde neighborhood.

The picture that the study provides on the history of *Gazteleku* covers the period from the precedents at the end of the seventies -like the Rekaldeberri Families Association (AFR) Youth Commission- through to its constitution as an association in the eighties, up to the present day. This study has been conceived and developed following the perspective provided by the concept of social innovation. The study has unveiled the key elements that enable this local initiative to maintain and even increase its vitality after over thirty years of existence.

It is important to note that what brought about the collaboration between the Association and the Study Group was the interest of the former in carrying out some critical reflection to assess the adequacy of their social intervention to the current context of the economic crisis and the consequent social problems. Such an interest already implied, in itself, an innovative attitude, that made it very difficult for Koheslan to reject the invitation to take part in the project. In the many hours devoted to interviews and working sessions together, we have been able to confirm that the decision to participate was correct.

The reflection has resulted in a list of actions, directed both toward the interior of the Association and towards society at large, which have now begun to be implemented. The study is both a contribution to the scope of discussion and an academic, research-oriented and political reference, that goes beyond the local level and allows for exercises of comparison and exchange with other similar initiatives.

The book consists of three parts. The first part includes its assessment by *Gazteleku* as a socially innovative initiative. In the second we offer certain broad characteristics of the profile of the Rekalde quarter that have made it become a disadvantaged neighborhood. In the third part, the Association itself speaks out to display its identity, projects and resources.

Koheslan, 14th April, 2013

Aurkezpena

Koaderno hau KOHESLAN-Gizarte Kohesiorako Ikasketa Taldeak, *Gazteleku*-Komunitate Garapenerako Elkartearekin batera, gizartearen eta unibertsitatearen arteko hitzarmenaren esparruan egin duen azterketa/ebaluazioaren aurrerapena da (UPV/EHU 2011.0531). Honen bidez, jakintza sortu nahi izan da *Gazteleku* elkartearen ekimenari buruz, hain zuzen ere, ekimen horrek tokiko esparruan –Errekaldeko auzoan– komunitate-garapenari egin dion ekarpenari buruz.

Azterketak ibilbide horretaz lantzen duen ikuspegiak barne hartzen ditu hala 1970eko hamarkadaren amaierako aurrekariak –adibidez, Errekaldeberriko Familia Elkarteko (AFR) Gazte Batzordea–, nola elkar-tearen eraketa bera, 1980ko hamarkadan egindakoa, eta orain arteko ibilera. Gizarte-berrikuntzaren kontzeptuak eskaintzen duen ikuspegiarekin bat etorrira proposatu eta garatu da azterketa, eta, prestatu den bitartean, banan-banan argitu dira zein diren auzoko ekimen honi, hogeita hamar urte luzez bizirik egon ondoren, bizitasunari eusteko eta areago handitzeko aukera ematen dioten gakoak.

Bereziki nabarmendu behar da elkartearen eta ikasketa-taldearen arteko elkarlaneko esperientzia sortu zela elkar-teak hausnarketa kritikoa egin nahi zuelako, era horretan inflexio-puntu bat izateko, gizartearen egiten zituen esku-hartzeak egungo krisialdi ekonomikoaren eta horren ondoriozko arazo sozialen tes-tuinguruaren arabera egokitu ahal izateko. Interes horrek, berez, jarrera berritzailea iradokitzen zuen, eta, hortaz, Koheslan taldeak ezin zion uko egin parte hartzeko gonbitari. Elkarriketak eta baterako lan-saioak egiten emandako ordu luzeetan, argi egiaztatu dugu, zorionez, erabakia oso ideia ona izan zela.

Hausnarketa bukatzean, jardueren prospektiba egin dugu –elkartearen barrurantz eta kanporantz–, eta abian jartzen hasi gara. Bestetik, azterketak ekarpena egiten dio eztabaidako eta erreferentziako esparru akademiko, ikertzaile eta politikoari, tokiko esparrua gainditzen du, eta aukera ematen du antzekoak diren ekimenekin erkaketak eta trukeak egiteko.

Koadernoak hiru zati ditu. Lehen zatian, *Gazteleku* elkartearen ebaluazioa aurkezten dugu, gizarte-ar-loko ekimen berritzaile gisa. Bigarren zatian, Errekalde auzoko soslaia marra batzuk eskaintzen ditu-gu, eta gizarte-egoera ahuleko auzo gisa azaltzen dugu. Hirugarren zatian, elkar-teak berak hartzen du hitza, bere nortasunaren ezaugarriak, proiektuak eta baliabideak adierazteko.

Koheslan, 2013ko apirilaren 14an

1. Gizarte-ekimen berritzailea

Gizarte Zientziak eta gizarte-ekimen berritzailearen **helburuak**

***Behar bezala bete ez diren beharrizanak bete nahi ditu,** hain zuzen ere, merkatuak edo estatuak “oraindik” edo “inoiz ez” garrantzitsutzat hartzen ez dituelako, edo hartuko ez dituelako, bete gabe daudenak –banakakoak nahiz taldekoak–.*

***Aukerak sortu nahi ditu,** eta, batez ere, erkidegoari gaikuntza eman nahi dio bere beharrizanak betetzeko, partaidetzako maila altuko harreman sozialetarako tasinguruak sortzeko, eta elkartasunezko sareak ehuntzeko gizarte-egoera ahulean dauden taldeen artean.*

Gazteleku elkartearen helburuak

1970ko hamarkadaren bigarren zatian aldarrikatzeko, antolatzeko eta mobilizazioak egiteko auzoan zegoen dinamikarekin konpromisoa hartu ondoren, *Gazteleku* elkarteak 1980ko hamarkadaren hasieran sortu zen, instituzioek gazteen esparruan betetzen ez zituzten beharrezko erantzuna emate aldera (ikusi: Asociación de Familias de Rekaldeberri, 2010).

Hasieran, *Gazteleku* elkarteak bere beharrezkoak betetzea zuen helburu, gazte-talde gisa zituenak, elizaren esparrutik zetorren eskaintza ez bezalakoak baitziren helburu horiek. Berehala hasi ziren auzoko haurrentzako eta nerabeentzako astialdiko hautabideak eskaintzen, eta, ildo horretan, balio laikoetan oinarritutako hezkuntzako proposamen bat abiarazi zuten.

Elkarteak Errekalden jaio eta garatu zen, gizarteko zaurgarritasun-indize altuak zituen auzoan, alegia; eta, beraz,

Gazteleku erraz txertatu zen aldatu nahi zuen errealitatean. Hori dela eta, errazago egin zaio bere arreta behar duten beharrezkoak zein diren sumatzea, gizarteak aldatzeko hautabide bat eraiki du pixkanaka, eta iraunkortasuna bilatu du eguneroko bizitzan.

"...Asko ikasi genuen *Gaztelekuri* esker, gauz pila baloratzen genuen, gure familiak ziren... Ni oporraldian ez nintzen inora joaten, kanpamentua zen opor bakarra! Norberak bere etxean arazoak zituen eta egia esan oso maite genuen elkar..."



Gizarte-berrikuntza eta **komunitate-garapena**

*Komunitatearen benetako garapena lortzeko, pertsonak gaitasunak, ekimena eta autonomia eskuratu behar dituzte **gizartea aldatu** ahal izateko. Ekimen berritzaile bat lagungarria izango da komunitate-garapena lortzeko, baldintza hauek betetzen baditu:*

✓ Bete beharreko beharrezanez buruzko ikuspegi zabala badu, eta pobreziari buruzko ideia mugatua utzi eta gizarteko bazterketara hedatzen badu...

“...gizarte-bazterkeria era askotako pertsonengan edo taldeengan eragina izan dezaketen desabantaila edo zaurgarritasun sozialeko hainbat eragile metatuz, gainjarritasun eta/edo nahastuz sortzen den prozesu dinamikoaren emaitza da. Normalean, gizarte-bazterkeriako dinamikek ezintasun edo zailtasun sakoneko egoerak sorrarazten dituzte, garapen pertsonala lortzeko, gizartean eta komunitatean txertatzeko eta aurrez finkatutako gizarte-babeseko sistemetara heltzeko tresnak eskuratu ahal izateko” (Joan Subirats, 2004).

✓ Parte-hartzea eta demokrazia lortzeko aukera emango duen komunitate-garapenerako eragilearen eta agentziaren kontzeptuari eutsi behar dio.

“Egia esan, norbanakoek beren patua eratu dezakete, eta laguntza eman diezaiokete elkarri. Ez dute beren burua hartu behar garapenerako programa azkarren laguntzen hartzaile pasibo gisa. Justizia sozialeko planak sortzeko eta ezartzeko prozesuan parte hartu behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da aukera izan dezaten, alde batetik, planak diseinatzen parte hartzeko, eta, bestetik, planen oinarriak izango diren lehenetarako eta balioak formulatzen aritzeko” (Amartya Sen, 2000).

Gazteleku eta komunitate garapena

Hasiera batean, *Gazteleku* ekimena abiarazi zuten gazteek gehienbat bultzatzen zituzten aldarrikape-
nek auzo osoa hartzen zuten barne, oro har. Hala ere,
gaur egun, adingabeen –eta bereziki gizarte-egoera-
rik ahulenean daudenak– hezkuntza da haien arreta
nagusia biltzen duen gaia.

Gazteleku elkarteak pixkanaka-pixkanaka zabaldu zi-
tuen bere helburuak; hori oso nabaria da gaur egun
jarduteko dituen arloen aniztasuna ikusita: gizar-
te- eta kultura-arloko animazioa, gizarte sustapena
eta gizartean parte hartzea. Arlo horietan guztietan
aritzen da, esparru guztiak elkarri lotzeko eta global-
tasuna lantzeko asmoz. Horri dagokionez, *Gazteleku*
elkarteak duen hezkuntzako erantzunean, globalta-
suna lantzeko asmo eraldatzailea nabaritzen da –ez
baitu gazteen sektore zehatzik bereizten–; eta asmo
horren aurrez aurre administrazioek eskatzen duten
erantzuna dugu, hor sektorializazioa baita nagusi.

Egungo krisialdi sozioekonomikoaren ondorioz bi-
zitzeko baldintzak larriagotu direla kontuan izanda,
Gazteleku elkartearen ustez, hausnarketa egin behar
da, eta elkarteak duen eginkizuna egokitu behar da.
Horretarako, aldaketa garrantzitsu batzuk egin nahi
ditu, gizartearen parte-hartzea pizteko, eta, horren-
bestez, elkartasunaren balioa edukiz, prozeduraz eta
proiektuz betetzeko.

"...Osasuna hemendik
arduratzen da, Hezkuntza
handik, Lana hemendik,
Gizarte Zerbitzuak handik,
beraien arteko loturarik ez
dago eta azkenean pertsonak
berak bere burua ere hortara
behartuta sentitzen du...,
bere bizitzaren ildoak
bananduta daude. Orduan,
geu globalitatea lantzen
saiazen gara..."



Komunitate-garapena eta kapital soziala

“Kapital soziala zera da: norbanakoek eta komunitateek beren auziak kudeatzean erabil ditzaketen gizarteko loturen bedapena, izaera eta kalitatea” (Dieter Zinnbauer, 2007).

- ✓ *Kapital sozialaren kontzeptua komunitate-garapenari lotuta dago, era horretan, **elkarreraginak ugalduz eta parte-bartzea bandituz, komunitatearen bizitza-baldintzak hobetzea lortzen baita.***
- ✓ *Kapital soziala kontzeptuaren indarra **azterketa maila ezberdina** lotzeko **abalmenean datza, maila mikro (indibiduala) eta maila makro (komunitarioa).***
- ✓ *Gizakiek eta gizataldeek garatzen dituzten ekimen berritzaileak, baita beren bizitzaren gainean eta beren ingurune komunitarioaren gainean duten eragina ere, ulertu eta aztertu ahal izateko, **gizakiak izaki sozial gisa ikusi behar ditugu eta ekintzaren testuinguruan geure burua kokatu ere.***

Gazteleku eta kapital soziala

Gazteleku elkarteak parte-hartzea lantzen du, jendeari entzuten dio, eta kalean egoten da, pertsonen beharrak eta desirak zein diren jakiteko, ezer ezartzeko edo zuzentzeko inolako asmorik gabe. Kontua da "taldea eratzea", hau da, oinarri kritiko bat sendotzea, eta, horrela, komunitateari laguntza ematea, ohar dadin, hala nahi badu, kontuak aldatzeko boterea duela.

Gazteleku elkartearen azken helburua gizartea aldatzea da. Tartean sartzen dituen balioak jabekuntzaren arlokoak dira, edo beren bizitza-baldintzak banaka nahiz taldeka eraldatzeko pertsonen duten ahalmenaren esparrukoak. Helburu horrek barne hartzen du jendeari laguntza ematea "bazterketaren zirkulutik" atera dadin, eta lagun horiek bestelako testuinguruetan eta egoeretan sartzea, haien parekoak diren pertsonen laguntzaz, beren buruaz arduratzeko moduan egon daitezzen, aukera berrien bila aritzeko.

Gazteleku elkarteak bere ekimen-ereduen alde egiten du, eredu horiei jarraiki, pertsonen beren burua antolatu eta kudeatzeko duten gaitasuna handitu ahal izango baitute, betiere, argi jakinda haien gabeziak baliabide-arloko gabeziak direla, eta ez direla inola ere ideia edo gaitasun-arloko gabeziak.

"...Kasurik larrienetan integratzea da helburua, espiraletik atera daitezzen. Espiraletik atera zarenean egoera normaltzen duzu, pertsona horiek hor daude..."



Gizarte-berrikuntza eta parte-hartze demokratikoa

Parte-hartze demokratikoaren ikuspegitik, gizarte-ekimen bat berritzaileztat hartu abal izateko, baldintza hauek bete behar ditu:

- ✓ *Laguntza eman behar du elkarrizketa eta komunikazioa lantzeko guneak azal daitezen, batera zebaztutako joko-arau argiak jarrita. Gainera, neurri baliagarriak ezarri behar ditu pertsonen eta taldeen prestakuntza eta informazioa emateko, era horretan, parte har dezaten lortzeko.*
- ✓ *Hausnarketa eta parte-hartzea lantzen dituzten guneak bultzatu behar ditu. Gune horietan, parte-hartze demokratikoari lotuta hartuko dira erabakiak, eta, horien bidez, kanpoan diseinatutako aurreko proiektuak onesteaz gain, lehentasuna emango zaie komunitatearentzat interesgarriak diren politikari.*
- ✓ *Gogoeta egiteko guneak sortuko ditu, eta gune horietan gatazken berri eman-go da, eztabaida egingo da dauden desberdintasunei buruz, eta adostasunak lortu abal izango dira, betiere, partekatutako ebaluazio jarraitu bat eginez.*

Horiek horrela, honako hauek gizarte-berrikuntzatzat har ditzakegu: komunitateen arteko elkarreaginak, beren asmo eraldatzailea eztabaida politikora eramane nahi duten ekintzak, norberak dituen ekimenen eta ekintza publikoaren arteko elkarrizketa, eta bion artean emaitzak besterentzea, gizarte-ekimenak berez duen autonomiatik abiatuta.

Gazteleku eta parte-hartze demokratikoa

Gazteleku elkarteak komunitate-garapenaren eta partaidetza bidezko demokraziaren esparruan kokatuta dago, eta horrek esan nahi du elkarrizketan oinarritutako asoziazionismoa bultzatzen duela (eztabaida egiteko eta adostasunak lortzeko), eta sareak sorrarazi nahi dituela (auzoan bertan eta kanpoan). Horretarako, harremanen sare bat ehundu du auzoko beste elkarte eta ekimen batzuekin, elkarrekiko begirunea oinarritzat hartuta.

Era berean, *Gazteleku* elkartearen ustez, ezinbestez eztabaidatu behar da instituzio publikoekin, eta akordioak egin behar dira haiekin, auzoko bizitza-kalitatea hobetzeko helburuekin bat datozen programak garatzeko.

Noizean behin, barruko jardunaldiak antolatzen dituzte, gainbegirapena, hausnarketa eta motibazioa lantzeko. Hausnartzeko duten joera horri esker, *Gazteleku* elkarteak kudeatzen dituen proiektuak aldatuz joan dira pixkanaka, eta berriz aztertu izan dira arian-arian, inguruabar aldakorretara egokitze aldera. Berriz aztertu, atzerantz itzuli, hasierako motibazioak berpiztu. Horixe izan da elkartearen bizitza, eta, beharbada, hala izan behar du gaur egun, sekula baino gehiago.

Gazteleku elkarteak ahalegin berezia egingo du beste auzo batzuetako eragileei, Administrazioari eta, oro har, gizarte osoari gizartearen ikuspegitik berritzaileen diren bere ekimenen berri emateko. Era horretan, behar bezala balioetsi, egokitu eta berriz aplikatu ahal izango dira, tokiko antzeko egoeretan eta/edo tesuinguruetan.

"...Adin txikikoen gaian edo gai komunitarioan, tolerantzia, koordinazioa, basamortu erdian uharte bat izatearen ordezt gertatzen denaren partaide izatea..., guzti hau garrantzitsua da. Egoera horretara heltzeko entzun, hitz egin eta ikasi behar duzu..."



Gizarte-berrikuntzarako **zailtasunak**

Tokiko berrikuntza demokratikoaren bertute horiek guztiak garatzeko, zailtasunak izaten dira eguneroko jardueran, boterearen arazoa egoten baita aurrez aurre, zentzu bikoitzean ulertuta, behintzat (Yvan Comeau, 2004):

- ✓ *Lehen zentzuak taldeko ekimeneko agentzia eta eragileen arteko oreka hauskorrari egiten dio aipamen. Oreka zaila da, taldeko ekimenek laguntza gehiago eskatzen baitiete botere publikoei, baina autonomia handia izan nahi baitute haien aurrean.*
- ✓ *Bigarren zentzua, berriz, taldeko ekimenek, bebetik aritzen direnean, politika instituzionalei era akritikoan jarraipena emateko duten arriskua da. Haien arazorik larrienetako bat da “adabakiak jartzeko” zerbitzu, produktu edo praktika bilakatzea.*

Gazteleku eta gizarte-berrikuntzarako **zailtasunak**

Gazteleku elkarteak ondo daki proposamen sektorial batzuk –Administrazioak hala eskaturik beharrianak betetzen dituztenak– kudeaketa-arloko zeregin koherente eta autonomoaren kalterako izan daitezkeela.

Hortaz, taldeak areago indartu behar du elkar-tearen eta ingurune politiko-administratiboaren status quoari buruzko galderak egiteko ohitura, bai eta bere buruari galderak egiteko ohitura ere, era horretan, izaera publikoko eta pribatuko entitateek emandako finantziazioak epe laburrean sorrarazten duen gehiegizko tentsioa kontrolatu ahal izateko.

Administrazioen laguntzazko eta sektorekako kudeaketa horren estrategiak dituen ondorio kaltegarrienetako bat da oztopoa dela komunitatean esku hartzeko sinergiak eta sareak sor daitezen.

Gazteleku elkarteak badaki zeregin hori ezin dela alde batera utzi, eginkizun zaila izan arren, eta, hortaz, bereziki nabarmentzen du komunitateko lokarriak une honetan indartu behar direla, tokiko ekintza-plana prestatu ahal izateko.

"...Zailtasunik handiena Administrazioarekin sinatutako hitzarmenak erlazio diferente batetik mantentzea da, hots, ez ni ezta zu ere bestearen gainetik... Aizu! Honen gainean bat gatoz, ezta?, ikus dezagun ba nola egin..."



Gizarte-berrikuntzako ekimenen **ebaluazioa**

Gizarte-berrikuntzen helburu nagusia da balio gehigarri bat sortzea gizarte osoarentzat –edo egoterra ahulean dagoen gizarteko talde batentzat–, ez soilik balio pribatu edo banakako bat. Hortaz, bada, berrikuntza ebaluatzerakoan ezin dugu oinarritzat hartu irizpide ekonomikorik edota emankortasunari lotutako irizpiderik –adibidez, zentzu teknologikoa–. Horren ordezt, pertsonen eta taldeen mende dagoen metatze materiagabea hartu behar dugu aintzat (M. J. Bouchard, 2006).

Gazteleku gizarte-ekimenaren **ebaluazioa**

Gazteleku **gizarte-ekimen berritzaile** gisa ebaluatu dezakegu, alderdi hauei erreparatuta:

Ideiareen originaltasuna. Beharrizanei emandako erantzuna

Gazteleku elkarteak auzoak eta auzokideek zituzten beharrizanei erantzuna emateko sortu zen. Elkarreak laguntzeko duen ildo bat haurrei eta gazteei zuzenduta dago. Beste ildo bat auzoko biztanle guztiak hartzen ditu barne, oro har, eta sareak ehundu nahi ditu beste erakunde batzuekin, hobekuntzak aldarrikatzeko eta komunitatea eraikitzeko.

Prozesuan dagoen sormena. Ikasten duen erakundea

Gazteleku elkarteak argi erakutsi du malgutasunez jokatzeko duela, bere funtzionamendua egiturazko eskakizunen arabera egokitzeko. Egokitze gaitasun hori garatu du, tartean tira-birak eta kontrolak egon ondoren, eta elkarteak berak ezarritako kontrolpean. Era horretan, ondo zaindu nahi izan du dena, hezkuntzako eta autokudeaketako helburuak inola ere desitxuratu ez daitezela.

Emaizak. Norbanakoaren eta komunitatearen jabeakuntza

Gazteleku elkarteak egin duen lanaren emaitza nekez ebaluatu daiteke kuantitatiboki. Arlo kuantitatiboek elkarrea bermatzen dute, baina hezkuntzako lanaren ondorioak denboraren poderioz baizik ezin dira antzeman; eta, sarritan, komunitateak (gehienetan) edota instituzioek (gutxiagotan) egiten dituzten afekzio eta onespenerako adierazpenen bidez sumatzen dira. Lekukotasun aski dago bi adierazpen horiek egiaztatzeko.

Gazteleku elkartearen esku utzitako zeregin berriak

Gazteleku elkarteari dei egin zaio lan zehatz bat egin dezan berehala, hain zuzen ere, egoera sozioekonomikorik zailenetan dauden pertsonen zuzendutako lana. Horretarako, kontuan izan beharko du pertsonen gaikuntza eta jabekuntza ezin uko eginezko helburuak direla. Elkartasuna eta parte-hartzea dira abian jarri beharko diren balioak.

Gazteleku elkartearen ustez, balioak sendotu behar dira, esku-hartzeari ekitean prestakuntza gehiago izateko. Zein ekimen solidario egin, eta nola eta zertarako egin aztertzea helburu egokia izan daiteke hausnarketarako. Hala, elkarriketa, kontzepzio instrumentala izan beharrean, bizitza asoziatiboaren funtsa izango da.

Gazteleku elkarte auzoan batzarrak egiteko aukera aztertzen ari da, era horretan, ideia eta ekimen eraldatzaileak bateratzeko, eta, horrenbestez, alde batetik, beharrian berriak zehaztu ahal izateko, eta, bestetik, krisialdi sozioekonomikoak sorrarazitako egoera berriarekin bat datozen ekintzako gidak adosteko.

Bibliografia

Asociación de Familias de Rekaldeberri (2010). *Rekaldeberri, la trama de un barrio*. Bilbo. AFR (arg.).

Bouchard M. J. (2006). "L'innovation sociale en économie sociale, *Cahier de la Chaire de recherche du Canada en économie sociale. Collection Recherche*", R/2006-01.

Comeau, Yvan (2004). "Les contributions des sociologies de l'innovation à l'étude du changement social". *CRISES Collection Études théoriques*. ET0418 zk., 29-39 or.

González, Sara; Moulaert, Frank; eta Martinelli, Flavia (2010). "ALMO-LIN. How to analyse social innovation at the local level?", hemen: Frank Moulaert, Erik Swyngedouw, Flavia Martinelli eta Sara Gonzalez. *Can Neighbourhoods Save the City? Community Development and Social Innovation*. Londres: Routledge, 49-67 or.

Morales Gutiérrez, Alonso Carlos (2009). "Innovación social: un ámbito de interés para los servicios sociales". *Zerbitzuan*. 45. zk., ekaina.

Moulaert, Frank (2010). "Social innovation and community development. Concepts, theories and challenges", hemen: Frank Moulaert, Erik Swyngedouw, Flavia Martinelli eta Sara Gonzalez. *Can Neighbourhoods Save the City? Community Development and Social Innovation*. Londres: Routledge, 4-16 or.


Sen, Amartya (2000). *Desarrollo como Libertad*. Madril: Editorial Planeta.

Subirats, Joan (zuzendaria) (2004). *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Bartzelona: Fundació La Caixa.

Zinnbauer, Dieter (2007). *What can Social Capital and ICT do for Inclusion?* European Commission. Directorate-General Joint Research Centre. Institute for Prospective Technological Studies. Espainia.

2. Gizarte-egoera ahulean dagoen auzoan

Gazteleku Komunitate Garapenerako Elkarteak Bilboko VII. barrutian aritzen da lanean, batez ere, Uretamendi, Peñasal eta Errekaldeberrin, hau da, Bilboko periferiako auzoetan. Bestetik, Uretamendi eta Peñasal gunek Errekaldeberri auzoko periferian daude. Nortasun nabarmena du bakoitzak, baina harreman estua dago denen artean, eta, horren ondorioz, Errekalde deitzen zaie hirurek osatzen duten multzoari.



Iturria: Bilboko Udala.

Langile-auzoak dira hiru gunek, etxebizitza txikikoak eta kultura-aniztasun handikoak. Errekaldeberri da gunerik handiena, hark biltzen ditu udal-baliabide gehien, eta beste bi guneekin partekatzen ditu. Errekaldeberrin daude kokatuta Barrutiko Udal Bulegoa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Liburutegia eta Ekitaldi Aretoa, besteak beste.

Errekalde osoan oso nabarmena da elkarteak eratzeko joera. Elkarte ugari daude inguru osoan: kulturakoak, hezkuntzakoak, astialdikoak edo auzokoak, besteak beste. Hori hala da, kultura-aniztasunaren eta gizartearen dauden arazoen ondorioz.

Zaugarritasunari eta gizarte-bazterkeriari dagokienez, 1991. urtetik gaur egunera arte, zailtasun eta arazo larriak izan dituzten familiak bizi izan dira hiru auzoetan, eta arazo horiek are larriagoak dira egun, krisialdi ekonomikoaren ondorioz.

Bilboko Hiri Behatokiak aztertu duenari jarraiki, Errekaldeko biztanleek egoera okerragoan sumatzen dute beren burua, Bilboko auzo gehienetako biztanleekin erkatuta, alderdi hauek kontuan hartuta: bizitza-kalitatea edo ongizate orokorra izateko sentimendua, ekipamenduak, tentsio gehiagoko giroa eta segurtasun eza izateko sentazioa (Bilbo Zaharra, San Frantzisko, Zabala eta Iralabarrri auzoekin batera) eta, aukera izanez gero, egoitzatik aldatzeko alde aurretik dagoen jarrera ona.

1991. urtean, aski altua zen hiru auzoetan bizi ziren haurren eta gazteen kopurua; eta hori arazoa zen orainari eta etorkizunari begira, estatus sozio-ekonomiko baxua zuten familiek nekez bete baitzitzairen beren adingabeen beharrianak.

Auzoko kide gehienak beste autonomia-erkidego batzuetatik etorriak ziren, gehienbat, Galiziatik,

Gaztela eta Leondik, Extremaduratik eta Kantabriatik heldutakoak. Heziketa-maila baxuko eta familia-errenta baxuko familiak ziren, eta familiako proiektu berri bat abiarazi nahi zuten.

Erronka handia zen haurrak eta gazteak ziren biztanleen etorkizuna. Alderdi askotan, auzoko haurrak eta gazteak egoera okerragoan zeuden ezer egiten hasi aurretik. Hargatik, elkarte batzuek engaiatzea erabaki zuten, haur eta gazte horiek etorkizun hobea izan zezaten borrokatzeko. Elkarte horien artean, *Gazteleku* zegoen.

2012. urterako, haurrak eta gazteak diren biztanleen kopuruak nabarmen egin du behera, eta zahartzaroko indizea, berriz, bikoiztu egin da ia. Horren ondorioz, mendekotasuneko tasek nabarmen egin dute gora, eta biztanleria askoz ere zaharra-goia da, orain dela urte batzuetako datuekin erkatuta. Dena dela, Peñascal auzoan joera hori ez da hain nabaria.

Errekaldeberri, Uretamendi eta Peñascal auzoetako eta Bilboko udalerriko 2012ko egiturazko adierazle demografikoak (%)				
	Errekaldeberri	Uretamendi	Peñascal	Bilbao
Hautzaroko indizea	12,9	12,1	13,7	12,1
Gaztaroko indizea	15,9	14,8	17,5	15,2
Zahartzaroko indizea	22,8	22,8	16,7	22,4
Mendekotasuneko tasa	55,4	53,5	43,7	52,8
Amatasun-indizea	18,8	17,3	21,9	18,6
Batez besteko adina	45	44	41	45

Iturria: Geuk egina, Lan Ekintzaren datuak oinarritzat hartuta.


Biztanleriaren osaera ere aldatzen ari da. Biztanleriaren oinarri nagusia bertakoa da oraindik, edo beste autonomia-erkidego batzuetatik etorria, bestela. Alabaina, 2000. urtetik hona, gero eta ugariagoak dira beste herrialde batzuetatik etorritako biztanleak, eta bertako biztanleria eta etorkin zaharrak, berriz, zahartuz joan dira. Familia berriak bizitzat berri bati ekiteko asmoz etortzen dira. Gehienak Hego Amerikakoak eta Afrikakoak dira, baina Europatik heldutako ehuneko txikiago bat ere bada.

Atzerrian jaiotako biztanleak, auzoaren arabera. 2010												
	Europako gainerako herrialdeak		Erdialdeko Amerika		Hego Amerika		Asia		Afrika		Beste batzuk	
Errekaldeberri	273	%15,4	67	%3,7	1.014	%57,1	121	%6,8	284	%16	18	%1
Uretamendi	33	%11,1	6	%2,0	165	%55,5	2	%0,7	91	%30,6	0	%0
Peñascal	33	%12,9	13	%5,1	95	%37,2	8	%3	106	%41,6	0	%0
Guztira	339	%14,5	86	%2,7	1.274	%54,7	131	%5,6	481	%20,6	18	%0,7

Iturria: Geuk egina, Bilbo kopuruetan argitalpena oinarritzat hartuta.

Migrazioko joera berri horri esker, biztanleria gazteagozten ari da pixkanaka-pixkanaka. Biztanle berriak oso garrantzitsuak dira eta izango dira, hiru auzo hauek gazteagotzeko. Biztanle horiek 20 eta 40 urte artekoak dira, ia ez dago 50 urtetik gorako biztanlerik, eta neska-mutilak ere oso ugariak dira.


Zazpigarren Barrutiko hezkuntza-eskaintzako datuak aztertuta, oso nabaria da errealitate berria dagoela ikastetxeetan. Ehunekoetan adierazita, biztanle atzerritarren batez besteko kopurua, guztizko biztanleekin erkatuta, %11,5koa da 7. barrutian. Ikasle atzerritarren kopurua, guztizko ikasleen kopuruarekin erkatuta, berriz, bikoitza baino gehiago da, hala Lehen Hezkuntzan nola Bigarren Hezkuntzan.



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Gizarte-egoera ahulean dagoen auzoan

Haurrak gizarte-egoera ahulean daude. Haien familiak kokatuta dauden auzoetan, ez dago jarduera ekonomiko nabarmenik, haien heziketa-maila baxuagoa da, eta haien lan-egoera ezegonkorragoa. Hala, beraz, eskolan porrota izateko aukera oztopo garrantzitsua da haien ibilbidean, murrizketek areago kaltetu duten hezkuntza-sistemaren barruan. Hortaz, arriskuko egoeren aurrean –adibidez, langabeziaren aurrean– duten zaurgarritasun-maila askoz handiagoa da, udalerrian dagoenarekin erkatuta.



Iturria: Geuk egina, Lanbideren datuak oinarritzat hartuta.

Prestakuntza urria duten biztanleek prestakuntza gehiago dutenek baino aukera gutxiago dute lana aurkitzeko, eta, beraz, Errekalden, batez ere, Peñaskal eta Uretamendi auzoetan, arriskua aski handia da. Bi auzo horietako familia-errentak udalerrri osoko errentarik baxuenak dira, eta, horren ondorioz, besteak beste, adingabeak oso ingurune zailean koskortzen dira, familian arazo ekonomikoak izanik, lan-arloan zalantzazko etorkizuna ikusirik, eta familiaren eta gizartearen babes aski sendorik jaso gabe.

Azken batean, datu subjektiboak eta objektiboak aintzat hartuta, zehatz esan dezakegu Errekaldeberri, Uretamendi eta Peñaskal auzoak –batez ere azken bi horiek– gizarte-egoera ahuleko auzoak direla, eta, auzo horietan, gizarte-bazterkerian egoteko arriskua handiagoa dela, Bilboko batez besteko kopuruarekin erkatuta.

3. Zer gara eta nortzuek eratzen dugu *Gazteleku*

Gazteleku taldea diktadura eta demokraziaren arteko trantsizio-garaian eratu zen, sasoi hartan Errekaldeko auzokideen mugimendua oso bizia baitzen (hainbat borroka izan ziren, besteak beste, autobidearen aurka, plaza eta anbulatorioaren alde, Haurrentzako kabinete psikopedagogikoaren eta San Adrian eta Eskurtzeko

irakaskuntza ertaineko ikastetxeen alde, eta hiria bir-sortzeko eta 1983ko uholdeen ondoren etxebizitzak okupatzeko mugimendua). Errekaldeberriko Familia Elkarteko gazteen talde batek Errekaldeko Gazteen Lokala (LjR) eratu eta abiarazi zuen, eta horixe da, izan ere, gaur egun *Gazteleku* deitzen dena.



Zer gara eta nortzuek eratzen dugu *Gazteleku*

Elkartea irabazi asmorik gabekoa, anitza eta independentea da, eta gizarte eraldatzea da haren xedea, ingurunerik hurbilenarekin guztiz engaiatuta dagoen komunitate-garapenerako ereduaren bidez. Era horretan, prozesu pertsonalak eta taldekoak garatu ahal izango dira, eta, horien ondorioz, hiritarrek izango dute berriz protagonismoa, arlo guztietan (arlo pertsonal, sozial, ekonomiko, kultural, politiko edo identitarioan) kalitatezko bizitza izateko duten eskubidearen aldeko borrokan.

Errekalde auzoko ingurunean sortu zen elkarte (Bilboko VII. barrutian), eta oso engaiatuta zeuden lagunek eutsi diote orain arte. 30 urte baino gehiago eman ditu gizarte, osasun, hezkuntza, hirigintza eta kultura-arloan hurbiletik sumatzen dituen betebeharrei erantzun antolatua eskaintzen, eta bereziki nabarmendu behar da zaurgarritasuneko egoerarik larrienetan daudenei egiten dien arreta.

Auzokideen babes zabala jaso du, elkarteak urte asko baitaramatza ametsak partekatzen era askotako lagun eta erakundeekin. Horren ondorioz, pertsonen multzo zabal batek eratzen du *Gazteleku* elkarte, bazkideek, kontratu-

pekoek, boluntarioek eta lankideek. Lagun horiek guztiek parte hartu eta aurrera egin nahi dute, gizarte gizatiartuago bat lortzeko.

Jarduteko ildoak

Gazteleku elkarte sortu zenetik, hainbat ildo garatu ditu jarduteko, batez ere gizarte eta kulturako animazioaren eta gizarte-sustapenaren esparruan arreta jarrita. Urteen poderioz, oso eskarmentu baliagarria lortu du bi esparru horietan, eta Bilboko VII. barrutiko Haur eta Gazteentzako Plan Globala izan da horren emaitza, azken hamar urteetan egin dituen ekintzen ardatza izan den plana. Hirugarren ildo bat parte-hartze eta komunitate-garapenaz arduratzen da.

- **Gizarte eta kulturako animazioaren arloan**, *Gazteleku* elkarteak balioetan oinarritutako hezkuntza bultzatzen du, eta, horretarako, parte-hartzea sustatzen duen aisia eta astialdia bultzatzen ditu. Era horretan, haurrak eta gazteak sentibilizatu nahi ditu, era kritikoan eta jakinaren ganean egonda kontsumi dezaten. Euskararen erabilera eta generoko berdintasunerako praktikak sustatzea *Gazteleku* elkartearen jardueran egunero azaltzen



diren balioak dira. Programa hauetan egiten ditu jarduerak horiek guztiak:

- ✓ **Zumizgai:** Haurtzaroa, 4-11 urte, balioak lantzerazuzendutako astialdiko jarduerak.
- ✓ **Lilura:** Nerabezaroa, 12-17 urte, nerabeen garapena eta autonomia lantzerazuzenduta.
- ✓ **Ubide:** Gaztaroa, 18-30 urte, komunitatearen parte-hartzea astialdian.
- **Gizarte-sustapenaren arloan,** laguntzako programak lantzen dira, eta bereziki zuzentzen zaizkie babesgabe-ko egoerarik larrienean dauden edo gizarteko bazterkeria-egoeran geratzeko arriskuan dauden biztanleei (pertsonei eta familiei). Programa horiek lagungarriak dira pertsona horiek bestelako testuinguruetan murgildu ahal izan daitezen, eta, horrenbestez, beren errealitatea alda dezaten.
- ✓ **EISECO:** Gizarte Heziketan eta Komunitatean esku hartzeko Udal Programa, babesgabeko arrisku egoeran dauden adingabeei, 0 eta 18 urte, eta haien familiei zuzenduta.
- ✓ **Zirkilu:** Babesgabeko arrisku egoeran dauden 0 eta 11 urte bitarteko neska-mutilei eta haien familiei zuzendutako zentroa.
- ✓ **Kali-kalo:** Ijitoek eratzen duten gutxiengo etnikoaren komunitate-garapena bultzatzeko programa.
- ✓ **Hirikoi:** Gazteen sustapena, 18-35 urte arteko gazteei zuzenduta, taldeko eta banakako hezkuntzako programen bidez hobekuntza pertsonala eta/edo taldekoa lortzeko prozesuak bultzatzeko.
- ✓ **Arbela:** Arrakasta eskolarra bultzatzeko Zentro psikopedagogikoa.



Zer gara eta nortzuek eratzen dugu *Gazteleku*



- ✓ **Caixa Proinfancia:** La Caixa fundazioaren programa zaurgarritasuneko egoeran dauden 0 eta 16 urte bitarteko adingabeak dituzten familiei zuzenduta dago.
- **Parte-hartzea eta Komunitate Garapena arloak,** auzoa birsortzeko asmoz eratu diren hainbat proiektu biltzen ditu.
- ✓ **Auskalo:** kaleko animazioa eta haur eta gazteentzako jarduerak diseinatzeko, eta elkarten mugimenduari, administrazio publikoei eta ikastetxeei zuzenduta dago.
- ✓ **Komunikatuz:** gizarte-heziketako eta sentsibilizazioko ikus-entzunezko ekoiztetxe bat da, eta helburu sozialak dituzten elkarten eta taldeen mugimenduari begira dago.
- ✓ **Herritarren "EMANTzipazioa" lortzeko gunea.**

Giza baliabideak eta baliabide materialak

- Aipatu ditugun hiru esparruetan bultzatzen dira jarduerak, hala bereziak edo unean unekoak, nola finkoak. Jarduera horiek egiteko, elkarteak berak dituen **giza baliabideak** erabiltzen dira: elkartearekin era askotako loturak dituzten lagunak gogotsu aritzen dira, jarduerak behar bezala atera daitezen. 2012. urtean, lagun hauek parte hartu zuten guztira:
 - ✓ **Kontratatuak:** 33 Gizarte Hezkuntza, Psikopedagogia eta/edo Irakasletza.
 - ✓ **Boluntarioak:** 68.
 - ✓ **Lankideak:** 26.
- ✓ **Parte-hartzaile / onuradun finkoak:** 720 lagun / astero (1.863 lagun/urtean, azken 5 urteetako batezbestekoa).
- Komunitateari proposatutako edo haren esku utzitako jarduerak egiteko dauden **baliabide materialei dagokienez**, *Gazteleku* elkarteak baliabide hauek ditu:




- ✓ **Lekuak:** 2.100 m², Zazpigarren Barrutiko hainbat ingurutako lokaletatik sakabanatuta: 9 Errekaldeberrin; 1 Uretamendi - Betolatzen eta 1 Iralan; horrez gain, aterpetxe bat Zeanurin. Une zehatzetan, jardueren plangintzari jarraiki, hainbat gune publiko dinamizatzen dira, hala aire zabalekoak nola itxiak.
- ✓ **Informatikako eta ikus-entzunezko baliabideak:** 34 ordenagailu parte-hartzaileentzat; 20 ordenagailu bulegorako, hain zuzen ere, material pedagogikoak planifikatzeko, eta ebaluazioak, jarraipenak eta bestelakoak egiteko; 10 ordenagailu eramangarri "prestakuntzako gelan"; ordenagailu eramangarri 1 bulegoan; 5 ordenagailu eramangarri eta 3 proiektagailu mailatzeko, proiektzioak, hitzaldiak eta antzeko jarduerak egiteko; ADSL bidezko Internetarako sarbidea ekipamendu informatikoe-tatik; argazki-kamera digitalak; bideo-kamerak; irrati-igorgailua; informazioko buletin digitala; eta *play station*-ak.
- ✓ **Animaziorako materiala:** 2 gaztelu puzgarri; musikako ekipamenduak aire zabalean egindako jaietan soinua jartzeko, zangoekin ibiltzen ikasteko eskola; monozikloak; kalejira egiteko txotxongiloak; eta kanpoaldeko ludoteka.
- ✓ **Material pedagogikoa:** material didaktikoa, liburuak, jolasak.
- ✓ **Beste batzuk:** 2 ibilgailu; zuri-beltzeko fotokopiagailua, koloretako inprimagailua, plastifikagailua eta orriak josteko makina.

Gazteleku elkarteak ohiz kanpoko ekimena da eta, beraz, tokiko komunitate-garapenarekin interesa duen lagun eta erakunde orok ezagutu beharko luke.

Hemen amaituko dugun koaderno honek elkartearekiko jakin-mina piztu izan badu zure baitan, gonbit egin nahi dizugu hurbilagotik ezagutzera, taldearen webgunera joz edo, zuzenean, Errekalde auzora hurbilduz.

www.gazteleku.org
gazteleku@gazteleku.org

Zer gara eta nortzuek eratzen dugu *Gazteleku*



1. Zumizgai **2.** Gazteleku **3.** PISEKO **4.** Auskalo **5.** Zumizgai **6.** Zirkilu **7.** Zumizgai **8.** Kali-kalo **9.** Gaztegune (Zumizgai, Lilura eta Ubide) **10.** Hirikoi **11.** Arbela eta Caixa Pro-Infancia